

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Aizarnazabalgo Udala**

**Ayuntamiento de Aizarnazabal**

**1997**

---

Vitoria-Gasteiz, 1999ko azaroak 15

Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre de 1999



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>2</b>
I.    Legezketasuna betetzea .....	2
II.   Kontularitzako alderdiak .....	2
III.  Finantza analisia eta kudeaketa alderdiak .....	3
III.1  Finantza analisia .....	3
III.2  Kudeaketaren bestelako alderdiak eta gomendioak .....	6
<b>INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>8</b>
<b>CONCLUSIONES</b> .....	<b>9</b>
I.    Cumplimiento de la legalidad .....	9
II.   Aspectos contables.....	9
III.  Análisis financiero y aspectos de gestión.....	10
III.1  Análisis financiero .....	10
III.2  Otros aspectos de gestión y recomendaciones .....	13
<b>ANEXOS</b> .....	<b>15</b>
A.1  Análisis de la contratación .....	15
A.2  Cuentas anuales.....	17
<b>ARRAZOIBIDEAK</b> .....	<b>20</b>



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Aizarnazabalgo Udalak 1997ko urtealdian izan duen ekonomia-finantza jarduerari buruzko txosten hau mamitu du, 1998ko martxoa-1999ko martxoa bitarteko Urteko Lan Programan barne hartu zena.

Lana udal jardueraren gaineko azterketa-diagnostikoa egitea izan da eta honenbestez, azterlanak ez ditu bete-beteko fiskalizazioan gauzatu ohi diren prozedura guztiak egin eta froga laburtuak aplikatu dira, bai luzerari dagokionez, baita horien sakontasunari dagokionez ere.

Hona hemen aztertu ditugun alorrak: antolakuntza orokorra, aurrekontu eta kontularitzako kontrolak, tributuen kudeaketa eta dirubilketan erabili diren prozedurak, langileen kudeaketa, zerbitzu eta obren kontratazioa eta dirulaguntzak ematea.

Txostenak iritzirik ematen ez badu ere Udalak ezargarria zaion lege araudia bete izanari buruz, ezta finantza-auditoretzako iritzirik ere onartutako Kontu Orokorrari buruz, gure azterketan zehar aurkitu ditugun alderdi aipagarriak Ondorioen I. eta II. idazpuruetan bildu ditugu.

Ondoren, III.1 idazpuruak udalaren finantza-analisia erakusten du eta III.2 idazpuruak, berriz, udalaren kudeaketa hobetzeko iradokizun osagarriak proposatzen ditu.

Aizarnazabalgo udalak 96.12.31n 556 biztanle zituen; honako hauetan parte hartzen du: Gipuzkoako Uren Partzuergoan; Urola Erdiko Mankomunitatean (zaborren bilketa eta tratamendua) eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean/UEMA.



## ONDORIOAK

### I. LEGEA BETETZEA

Sarreran adierazitako sakontasunarekin egin dugun azterketan, ondotik erakutsiko ditugun legehausteak aurkitu ditugu:

#### Sarrerak

- Ur, Zabor, Saneamendu eta Estolderia Tasei dagozkien hiruhileko erroldak ez ditu Alkateak oniritzen (Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1.m art.).

#### Funtzio Publikoa

- 97.11.28ko Udalbatzak 1997rako Arcepafe ezartzea onartu zuen, 1996arekiko %1eko igoerarekin, gehi 20.000 pezetako zenbateko finkoa. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997rako Legeak (12/96 Legea, 17. art.) agintzen du urte horretako ordainsariek ez dutela 1996koekiko aldaketarik izango.

- Langile gastuetan 1,6 milioi pezeta barne hartu dira, Alkateari egunero udaletxean 4 ordu egiteagatik ordaindutakoak, eta 1 milioi pezeta dieta kontzeptuan udalbatzetan esku hartzeagatik. Kopuru hauei ez zaie atxikipenik egin, ezta NUIZ kontzeptuan Gipuzkoako Foru Ogasunaren aurrean, ez Gizarte Segurantzaren aurrean aitortu ere.

#### Administrazio Kontratazioa

1997an zehar 33 milioi pezetako gastuak eragin zituzten 4 kontraturen esleipen prozesuak aztertu ditugu (ikus A.1 eranskina); hona hemen aurkitutako legehausteak:

- Hirigintza lanetarako 4,5 milioi pezetako kontratu bat esleitu zitzaion gune berean etxebizitza sustapen bat garatzen ari zen hirugarren bati, inongo lehiaketa prozesurik bideratu gabe (Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko 13/95 Legearen 11.1 art.).

- 15 milioi pezetan esleitu zen espedienteetako batean, kopuru hau lanen egiterapenean zehar %20 gainditu da, egitasmoaren aldaketa bideratu eta oniritzeko obligazioa urratuz (APKLren 55. eta 102. art.).

### II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Gure azterlanean ez dugu kontularitzako egoera okerrik aurkitu; azterlana mugatua izan da, sarreraren atalean aipatu bezala.



### III. FINANTZA ANALISIA ETA KUDEAKETAREN BESTE ALDERDI BATZUK

#### III.1 FINANTZA ANALISIA

Ondoko taulan jaso ditugu udalaren azken urteetako magnitude nagusiak, onartutako bere kontuetatik murriztuak:

FINANTZA ANALISIA	Milioi pezetan				Mila pezetan/biztanleko				Erref. 97(*)	
	Urtea				Urtea					
	95	96	97	98	95	96	97	98	Gip	Eusk
1etik 3rako kapit. sarrerak.....	39	37	37	41	71	68	67	74	44	40
4. eta 5. kapit. sarrerak.....	38	40	47	47	69	71	85	86	89	80
<b>A. Sarrera arruntak guztira</b>	<b>77</b>	<b>77</b>	<b>84</b>	<b>88</b>	<b>140</b>	<b>139</b>	<b>152</b>	<b>160</b>	<b>133</b>	<b>120</b>
Langile gastuak.....	32	26	27	28	59	47	48	51	36	31
2. eta 4. kapit. gastuak.....	32	26	24	23	58	47	44	42	48	53
<b>B. Funtzionamendu gastuak</b>	<b>64</b>	<b>52</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>117</b>	<b>94</b>	<b>92</b>	<b>93</b>	<b>84</b>	<b>84</b>
<b>Aurrezki gordina (A. - B.)</b>	<b>13</b>	<b>25</b>	<b>33</b>	<b>37</b>	<b>23</b>	<b>45</b>	<b>60</b>	<b>67</b>	<b>49</b>	<b>36</b>
Finantza gastuak: 3. kapit.....	6	6	4	3	11	11	7	5	3	2
<b>Emaitza arrunta</b>	<b>7</b>	<b>19</b>	<b>29</b>	<b>34</b>	<b>12</b>	<b>34</b>	<b>53</b>	<b>62</b>	<b>46</b>	<b>34</b>
Jasotako kapital transferentziak.....	8	4	8	5	15	8	14	10	8	23
6. eta 7. kapit. inbertsioak.....	31	17	29	17	56	31	52	30	53	52
12.31n Diruzaintza gaidikina.....	3	4	5	21	6	6	9	39	23	38
12.31n zorpidetza.....	70	64	57	50	127	116	104	91	35	23

(\*) Gipuzkoa / Euskadiko 330 eta 800 biztanle bitarteko Udalen 1997ko batez bestekoak

Biztanleak: 556

Udalaren inbertsio gaitasuna mugatzen duen osagarri nagusia udalak eskuratzen duen emaitza arrunta da (aurrezki gordina, ken finantza gastuak). Honi gaineratu behar zaizkio lor daitezkeen berariazko kapital dirulaguntzak eta, kasua balitz, zorpidetza handiagora jotzeko baliabidea.

#### Aurrezki gordina

Aurrezki gordinaren kopurua altua da erreferentziako udalen multzoaren aldean eta goranzko joera nabarmena erakusten du, 1998an biztanleko 67.000 pta. egin dituela. Osagaiak aztertuta zera ikusi dugu:

- Sarrera fiskalak altuak dira, gaitasun fiskala (udalerraren aberastasuna) ona delako eta tarifa zergagarri altuak ezartzen direlako, biztanleko altuagoa duten udalerrien pareko (%46ko ahalegina, maila horretakoek egin ohi duten %36ko ahaleginaren aldean, GFDk Gida/Aurrekontuak, Finantzak eta Tributuetak, 1998ko abenduan argitara emandako adierazlearen arabera).




- Langile gastuak altuak dira multzo bereko udalerrien aldean; izan ere, udalak zuzenean ematen baititu beste udaletxe batzuetan azpikontratatzaren diren hainbat zerbitzu: etxerako laguntza eta bulegoen garbiketa.
- 2. eta 4. kapituluetakoko gastuak (erosketak, zerbitzuak, transferentziak eta dirulaguntza arruntak) jaitsi egin dira aztertu dugun aldian, erreferentziagai ditugun kopuruetara iritsi arte. 1997ko urtealdian horren osaera aztertu dugu eta aipagarria da Udalak biztanleko emandako dirulaguntza kopurua (4 milioi pezeta inguru), aurreko idazatian aipatutako azpikontratazio txikiak konpentsatzen dituztenak.

## Zorpidetza

EMAITZA ARRUNTA ETA ZORPIDETZA

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako zutabeak 1997ko urtealdiari dagozkio.

1997. urtealdiko zorra 57 milioi pezetakoa da eta 1998.aren amaieran 50 milioi pezeta egiten zituen (90.000 pta./biztanleko), lurralde historikoan dauden baloreetarik altuenetakoa eta erreferentzia gisara hartu ditugun Gipuzkoako udalen balorea baino bi eta erdi aldiz altuagoa. Zor honen jatorria Kultur Etxea zaharbertzeko inbertsioen finantzaketan eta ur-horniduraren sarean egindako lanetan dago, 1994 eta 1995ekoak.

Taulan ikus daiteke udalak progresiboki zorpidetza urritu duela emaitza arruntak hobetzearekin batean; honek guztiak finantza garapen positiboa erakusten du, autofinantzaketarako gaitasuna hobetzen duelako.

Finantza gastuek behera egin dute aztergai izan dugun aldian, bai zorra murrizteko politikagatik, baita interes tipoek behin eta berriz behera egin izateagatik.

## Inbertsioak

Ondoko taulan Udalak aztertu dugun aldian egin dituen inbertsioak erakutsiko ditugu; baita, hirugarrengandik jasotako finantzaketarekin egin direnak zehaztu ere:




Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### INBERTSIOAK

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako zutabea 1997ko urtealdiari dagokio.

Aizarnazabalgo udalak egin dituen inbertsioak erreferentzia modura hartu ditugun Gipuzkoako udalek egindako inbertsioen pareko dira. Inbertsio nagusienak Herriko Plazaren urbanizazioa, ur hornidurarako obrak, hilerri berria eraikitzen hastea eta Mateone sektoreko hirigintza lanak dira.



## III.2 BESTELAKO KUDEAKETA ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

### AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

#### Helburuak eta adierazleak

1997rako Aurrekontuak ez zituen udal arduradun bakoitzak eskuratu beharreko helburuak barne hartzen; informazio hori oinarritzkoa da aurreikusitako gastuen datu ekonomikoak osatzeko.

Aurrekontuaren gastu-kopuruak osatzea komeniko litzateke eskuratu asmo diren urteko helburuekin, gerora jarraipena egitea bideratuko duen modu objetiboan.

#### Hitzartutako gastuaren kontrola: D atala

Artekaritzaren kontrola ez da egiten hasten harik eta ordainagiria jasotzen ez den bitartean.

Kontratazio espedienteen gaineko derrigorrezko fiskalizazioaz gain, eskaeren kontrola ordainagiriaren iritsierari aurreratuko zaio, gutxienez 100.000 pta. inguruko eta lehiaketak deitzeko gutxienerako mugen artean egiten diren eragiketei dagokienez.

Hau lortzeko eskaera-formulario bat egin beharko litzateke, baimena duten zinegotziek bete beharrekoa; hori artekaritzak fiskalizatuko luke, onartu eta kontuetaratu (baita izapidatu ere, baldin eta erosketen kudeaketa zentraltzeko aukera egiten bada). Hau guztia legez derrigorrezkoa ez bada ere, une honetan gastuen D atala kontuetaratzea gomendatzen dugu eta hori erraza da, izan ere, egungo kontabilitate-aplikazioak horretarako bide ematen baitu.

#### Ondare Kontabilitatea

1997ko abenduaren 31ko egoera-balantzea deskoadratua dago 23,1 milioi pezetan, 1996. urtealdiko ondare emaitzari dagozkionak, oraindik aplikatu gabea.

Orobat, egoera balantze horrek ez ditu 1993ko apirilean funtzionarioak Gizarte Segurantzara biltzeak eragindako pasiboak barne hartzen; ezta, pentsioen foru sistema zaharrak zorpetutako pentsio osagarrien pasiboak ere; obligazio horiek guztiak, azterketa gaurkotu bitartez balioetsi beharko lirateke.

## TRIBUTUEN KUDEAKETA ETA DIRUBILKETA

### Foru Diputazioak kudeatutako tributuak

Foru Diputazioak kudeatzen dituen zergak (OHZ eta JEZ), urtealdi bakoitzean eskuratzen diren zenbatekoekin kontuetaratzen dira.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Gainerako zergekin egiten den bezalaxe, sarrerak kobrantza eskubidea sortzen denean aitortu behar dira, kobrantzak dagozkion urtealdiari izendatuz; horretarako Udalak Diputazioari eskatu beharko dio, indarreko hitzarmenen 14. eta 15. klausulek aurreikusten dituzten beharrezko diren xehetasunak igor ditzala.

#### Dirubilketa jarduerari buruzko informazioa

Udalbatzak dirubilketaren kudeaketari buruz eskuratzen duen informazioa urteko likidazioan barne hartutako kontularitzako datuetara mugatzen da

Komenigarria litzateke Udalbatzari, berariaz edo Kontu Orokorrean barne hartuta, honako informazio hau aurkeztea: jaulkitako ordainagiri/likidazioei buruzko informazioa, molde ezberdinetan egindako kobrantzak, baliogabetzeak, gerorapenak, baliabideak, zor-agiriak, etab. (Dirubilketa Kontua).

#### LANGILERIA

##### Lanpostuen zerrenda: ordainketa-egitura

Udalaren funtzionario bakarraren ordainketa-egitura ez zaio Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 77tik 81era bitarteko artikuluetan finkatutakoari eta Lege honek 207/90 Dekretuan duen garapenari egokitzen. Alderik handiena Udalean osagarriak lanpostu maila soilik gogoan hartuta izendatzean datza.

Ordainketa kontzeptuak ezargarria den araudiari egokitu.

#### DIRULAGUNTZAK

##### Dirulaguntzak ematea

Udalak talde eta elkarteei dirulaguntzak ordaindu aurretik ez die euren obligazio fiskaletan eta, kasua denean, Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotuak daudelako egiaztatzea eskatzen.

#### ALDERDI FISKALAK

Jaietako gastuen egiaztatgiriak ikuskatu ditugu, 1,4 milioi pezetakoak; horietan, derrigorrezko betekizun formalak ez direla betetzen ikusi dugu.

Gainera, profesionari bati ordaindutako ordainsariak Arkitektuen Elkargoarenak bailiran erregistratzen dira; profesionari hori, ordea, ez da elkargoaren izenean ari, bere kontura baizik. Egintza honek eragina du hirugarrenengoetik harremanen gaineko zerga aitorpenean, 347 eredu-orria.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88, reguladora del mismo, ha realizado este informe sobre la actividad económico-financiera del ayuntamiento de Aizarnazabal en el ejercicio 1997, incluido en el Programa Anual de Trabajo marzo 1998-marzo 1999.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad municipal, por lo que debe señalarse que no se han seguido en la revisión todos los procedimientos propios de una fiscalización completa, habiéndose aplicado pruebas abreviadas, tanto en su extensión como en los alcances de las mismas.

Las áreas analizadas han sido las siguientes: organización general, controles presupuestarios y contables, procedimientos aplicados en la gestión y recaudación de tributos, gestión de personal, contratación de servicios y obras, y concesión de las subvenciones.

Aunque el informe no emite una opinión sobre el cumplimiento por el Ayuntamiento de la normativa legal que le es aplicable, ni una opinión de auditoría financiera sobre la Cuenta General aprobada, los aspectos parciales encontrados en la revisión se describen en los epígrafes I y II de las Conclusiones.

A continuación, el epígrafe III.1 presenta un análisis financiero del Ayuntamiento, y el III.2 propone una serie de sugerencias complementarias para mejorar la gestión del mismo.

El ayuntamiento de Aizarnazabal tenía a 31.12.96 una población de 556 habitantes, formando parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, de la Mancomunidad del Urola Medio (recogida y tratamiento de basuras), y de Udalherri Euskaldunen Mankomunitatea/UEMA.



## CONCLUSIONES

### I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción se han detectado los siguientes incumplimientos de legalidad:

#### Ingresos

- Los padrones trimestrales correspondientes a la Tasa de Agua, Basuras, Saneamiento y Alcantarillado no son aprobados por el Alcalde (art. 21.1.m de la Ley 7/85 reguladora de las bases de Régimen Local).

#### Función pública

- El Pleno de 28.11.97 aprobó la aplicación para 1997 del Arcepafe, con un incremento respecto de 1996 del 1% más un importe fijo de 20.000 pesetas. Esto incumple la Ley 12/96 de Presupuestos Generales del Estado para 1997 que, en su artículo 17, establece que las retribuciones de ese año no debían experimentar variación con respecto a las de 1996.

- Los gastos de personal incluyen 1,6 millones de pesetas abonados al Alcalde por su dedicación diaria de 4 horas al ayuntamiento, y 1 millón de ptas por dietas a los 7 concejales por asistencia a reuniones. Estos importes no han sido objeto de retenciones fiscales, ni declarados ante la Hacienda Foral de Gipuzkoa en concepto de IRPF, ni a la Seguridad Social.

#### Contratación administrativa

Hemos revisado los procesos de adjudicación de 4 contratos que generaron gastos durante 1997 por 33 millones de ptas (ver anexo A.1), detectando los siguientes incumplimientos:

- Se adjudicó un contrato para trabajos de urbanización por 4,5 millones de ptas al mismo tercero que estaba desarrollando una promoción de viviendas en la misma zona, sin un proceso concurrencial (art. 11.1 de la Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP).

- En uno de los expedientes, por importe de adjudicación de 15 millones de ptas, se ha sobrepasado este importe durante la ejecución en un 20%, incumpliendo la obligación de tramitar y aprobar la modificación del proyecto (arts. 55 y 102 de la LCAP).

### II. ASPECTOS CONTABLES

No se han detectado situaciones contables erróneas en el curso del trabajo de revisión que, como se ha señalado en la Introducción, ha sido de carácter limitado.



### III. ANÁLISIS FINANCIERO Y OTROS ASPECTOS DE GESTIÓN

#### III.1 ANÁLISIS FINANCIERO

Las principales magnitudes del Ayuntamiento en los últimos años, deducidas de sus cuentas aprobadas, se presentan en el siguiente cuadro:

ANÁLISIS FINANCIERO	En millones de ptas.				En miles-ptas/habitante				Refs. 97(*)	
	Año				Año				Gip	Eusk
	95	96	97	98	95	96	97	98		
Ingresos caps. 1 a 3.....	39	37	37	41	71	68	67	74	44	40
Ingresos caps 4 y 5 .....	38	40	47	47	69	71	85	86	89	80
<b>A. Total ingresos corrientes</b>	<b>77</b>	<b>77</b>	<b>84</b>	<b>88</b>	<b>140</b>	<b>139</b>	<b>152</b>	<b>160</b>	<b>133</b>	<b>120</b>
Gastos de personal.....	32	26	27	28	59	47	48	51	36	31
Gastos caps. 2 y 4.....	32	26	24	23	58	47	44	42	48	53
<b>B. Gastos de funcionamiento</b>	<b>64</b>	<b>52</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>117</b>	<b>94</b>	<b>92</b>	<b>93</b>	<b>84</b>	<b>84</b>
<b>Ahorro bruto (A. - B.)</b>	<b>13</b>	<b>25</b>	<b>33</b>	<b>37</b>	<b>23</b>	<b>45</b>	<b>60</b>	<b>67</b>	<b>49</b>	<b>36</b>
Gastos financieros : cap. 3.....	6	6	4	3	11	11	7	5	3	2
<b>Resultado corriente</b>	<b>7</b>	<b>19</b>	<b>29</b>	<b>34</b>	<b>12</b>	<b>34</b>	<b>53</b>	<b>62</b>	<b>46</b>	<b>34</b>
Transferencias. de capital recibidas.....	8	4	8	5	15	8	14	10	8	23
Inversiones caps. 6 y 7.....	31	17	29	17	56	31	52	30	53	52
Remanente de tesorería a 31.12.....	3	4	5	21	6	6	9	39	23	38
Endeudamiento a 31.12.....	70	64	57	50	127	116	104	91	35	23

(\*) Medias en 1997 de los Aytos entre 300 y 800 habs. de Gipuzkoa / Euskadi

Habitantes: 556

La capacidad de inversión municipal tiene su principal componente en el resultado corriente (el ahorro bruto menos los gastos financieros) conseguido por el ayuntamiento. A esto hay que añadir las subvenciones de capital específicas que puedan conseguirse y, en su caso, el recurso a un mayor endeudamiento.

#### Ahorro bruto

La cifra de ahorro bruto es elevada con respecto al estrato de los ayuntamientos de referencia y sigue una tendencia ascendente muy marcada, llegando a las 67.000 ptas/habitante en 1998. Analizando sus componentes se observa que:

- Los ingresos fiscales son elevados, lo que se produce como consecuencia de una buena capacidad fiscal (riqueza del municipio) así como por la aplicación de tarifas impositivas altas, similares a las de municipios de mayor nivel poblacional (46% de esfuerzo frente a una media del estrato del 36%, según el indicador publicado por la DFG en Gida/Presupuestos, Finanzas y Tributos, diciembre de 1998).




- Los gastos de personal son elevados en comparación con los municipios de referencia, debido a la prestación directa por el Ayuntamiento de servicios que en otros ayuntamientos se subcontratan: ayuda domiciliaria y limpieza de oficinas.
- Los gastos de los capítulos 2 y 4 (compras, servicios, transferencias y subvenciones corrientes) han experimentado descensos en el período analizado, hasta llegar a cifras similares a los importes de referencia. Analizada su composición en el ejercicio 1997, destaca la elevada cifra de subvenciones por habitante concedidas por el Ayuntamiento (aproximadamente, 4 millones de ptas), que compensan las menores subcontrataciones mencionadas en el párrafo anterior.

## Endeudamiento

### RESULTADO CORRIENTE Y ENDEUDAMIENTO

Miles-ptas/hab



Las columnas de Gipuzkoa están referidas al ejercicio 1997.

La deuda existente al cierre del ejercicio 1997 es de 57 millones de ptas, y al final de 1998 de 50 millones de ptas (91.000 ptas/habitante), uno de los valores más altos del territorio histórico, y dos veces y media superior al de los ayuntamientos guipuzcoanos tomados como referencia. Tiene su origen en la financiación de las inversiones de remodelación de la Casa de Cultura y en obras en la red de abastecimiento de agua, realizadas en 1994 y 1995.

En el cuadro puede observarse como el Ayuntamiento ha ido reduciendo progresivamente su endeudamiento, a la vez que mejoraba el resultado corriente, lo que supone una evolución financiera positiva ya que mejora su capacidad de autofinanciación.

Los gastos financieros disminuyen en el período analizado, tanto por la política de reducción de la deuda como por las sucesivas disminuciones de los tipos de interés.




Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Inversiones

En el siguiente cuadro se muestran las inversiones realizadas por el Ayuntamiento en el período analizado, así como la parte de las mismas que se han realizado con financiación recibida de terceros:



La columna de Gipuzkoa está referida al ejercicio 1997

Las inversiones realizadas por el ayuntamiento de Aizarnazabal son de importe similar a las de los ayuntamientos guipuzcoanos tomados como referencia. Las principales inversiones en el período analizado han sido la urbanización de la Herriko Plaza, obras de abastecimiento de agua, el inicio de la construcción del nuevo cementerio, y actuaciones urbanísticas en el sector Mateone.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## III.2 OTROS ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES

### PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD

#### Objetivos e indicadores

El Presupuesto para 1997 no incluía los objetivos a alcanzar por cada responsable municipal, información que es esencial para completar los datos económicos de los gastos previstos.

Convendría completar las cifras de gastos del Presupuesto con los objetivos anuales a alcanzar, de una forma objetiva que permita su seguimiento posterior.

#### Control del gasto comprometido: fase D

El control de intervención no se inicia, en la situación actual del Ayuntamiento, hasta el momento de recepción de la factura.

Además de la necesaria fiscalización de los expedientes de contratación, el control de los pedidos debe anticiparse a la llegada de la factura, por lo menos para las operaciones comprendidas, orientativamente, entre unas 100.000 ptas y los límites mínimos para la convocatoria de los concursos.

Esto se conseguiría estableciendo un formulario de pedido a rellenar por los concejales autorizados, que sería fiscalizado por intervención, aprobado y contabilizado. A este respecto, si bien no es legalmente obligatorio, se recomienda que en este momento se contabilice la fase D de gastos, lo que resulta sencillo dado que la aplicación de contabilidad actual lo permite.

#### Contabilidad patrimonial

El balance de situación al 31 de diciembre de 1997 se halla descuadrado en 23,1 millones de pesetas correspondientes al resultado patrimonial del ejercicio 1996, el cual no ha sido aplicado.

Asimismo, dicho balance de situación no incluye los pasivos generados por la integración de los funcionarios en abril de 1993 a la Seguridad Social, obligación que debería ser estimadas mediante estudio actuarial.

## GESTION Y RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS

### Tributos gestionados por la Diputación Foral

La contabilización de los impuestos gestionados por la Diputación Foral (IBI e IAE) se realiza por los importes que se reciben durante cada ejercicio.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Al igual que en el resto de tributos, los ingresos deben reconocerse cuando se genera el derecho de cobro, asignando los cobros al ejercicio a que corresponda, para lo que el Ayuntamiento deberá exigir a la Diputación la remisión de los detalles necesarios y previstos por las cláusulas 14 y 15 de los convenios en vigor.

#### **Información de la actividad recaudatoria**

La información que recibe el Pleno sobre la gestión recaudatoria se limita a los datos contables incluidos en la Liquidación anual.

Sería conveniente presentar al Pleno, específicamente o integrada en la Cuenta General, información sobre los recibos/liquidaciones emitidos, cobros en sus distintas modalidades, anulaciones, aplazamientos, recursos, certificados de descubierto, etc. (Cuenta de Recaudación).

#### **PERSONAL**

##### **Relación de puestos de trabajo: estructura retributiva**

La estructura retributiva del único funcionario del Ayuntamiento no se adecúa a la fijada en los artículos 77 a 81 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca, y a su desarrollo en el decreto 207/90. La diferencia más importante estriba en que, en el Ayuntamiento, los complementos se asignan considerando únicamente el nivel del puesto.

Adecurar los conceptos retributivos a la normativa aplicable.

#### **SUBVENCIONES**

##### **Concesión de subvenciones**

El Ayuntamiento no exige, con carácter previo al pago de subvenciones a los diferentes grupos y asociaciones, la constancia de estar al corriente de sus obligaciones fiscales y, en su caso, con la Seguridad Social.

#### **ASPECTOS FISCALES**

Hemos revisado justificantes de los gastos de fiestas, por importe de 1,4 millones de pesetas, habiendo observado que carecen de los requisitos formales obligatorios.

Además, los honorarios abonados a un profesional se registran como correspondientes al Colegio de Arquitectos, que no actúa en su nombre sino por cuenta del mismo. Este hecho afecta a la declaración fiscal de relaciones con terceros, modelo 347.





## ANEXOS

### A.1 ANÁLISIS DE LA CONTRATACIÓN

La ejecución del gasto de los capítulos 2 y 6 del sector público local se regula, fundamentalmente, por las siguientes normas:

- Ley 7/85, Reguladora de Bases de Régimen Local/LRBRL.
- Real Decreto Legislativo 781/86, Texto Refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local.
- Ley 13/95, de Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP.
- Decreto 3410/75, Reglamento General de Contratación de Estado, y disposiciones modificativas del mismo.
- Decreto 1005/74, sobre Contratos de Asistencia con Empresas Consultoras o de Servicios.
- Real Decreto 2757/85, sobre Contratación de Trabajos Específicos y Concretos No Habituales.

El art. 57 de la LCAP exime de requisitos de publicidad y concurrencia a los denominados contratos menores, obras menores a 5 millones (art. 121 LCAP) y suministros y asistencias técnicas con presupuesto inferior a los 2 millones (arts. 177 y 202), importes que deben disminuirse hasta el 2% de los ingresos corrientes cuando esta cifra resulte inferior (disposición adicional 9ª). En el Ayuntamiento, el límite queda fijado así en 1,8 millones de ptas, independientemente del tipo de contrato.

La revisión ha consistido en verificar los principales aspectos de la normativa, centrandolo las pruebas en los procesos de adjudicación. Para ello, hemos identificado 5 terceros con volumen de operaciones superior a 2 millones, de los que se ha excluido el suministro de energía eléctrica. En el siguiente cuadro se muestran los expedientes revisados, y las conclusiones obtenidas sobre los mismos:

Objeto	___Importes___		___Adjudicación___			Deficiencia
	Adjudic.	Oblig.97	Sistema	Fecha		
Herriko Enparantza: urbanización .....	15,0	4,2	Concurso	1996		C D
Sector Mateone: proyecto 12 viviendas y urbanización .....	7,6	6,6	Concurso	1996		C D
Sector Mateone: conexión abastec. y saneamiento.....	4,5	2,7	Sin concurr.	08/07/97		A B C D
Cementerio nuevo: primera fase.....	21,9	19,5	Subasta	29/07/97		C
<b>Total</b>	<b>49,0</b>	<b>33,0</b>				

Deficiencia A: adjudicación sin concurrencia (art. 11.1 LCAP).

B: tramitación irregular sin pliego admin., ni presupuesto/pliego técnico, ni certif. Hacienda (arts. 11.2, 20.f LCAP).

C: adjudicaciones sin fiscalizar (art. 11.2.g LCAP).

D: otras deficiencias específicas, comentadas en el epígrafe de Conclusiones o en este Anexo.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

En la urbanización de Herriko Enparantza el gasto supera el importe de adjudicación en un 20%, sin tramitar el preceptivo expediente de modificación (arts. 55 y 102 de la LCAP). En los dos expedientes correspondientes al sector Mateone, proyecto y urbanización, no se ha solicitado fianza (arts. 37 y 55.2 LCAP)



## A.2 CUENTAS ANUALES

### AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL / Cuentas presupuestarias

A. LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 1997							Millones-ptas.	
INGRESOS	___Presupuesto___			Dchos. Obligs.	Cobros Pagos	Pdtes.	% Ejec.	
	Inicial	Modif.	Defin.					
1.- Impuestos directos .....	12,5	0,5	13,0	14,1	14,1	-	108%	
2.- Impuestos indirectos.....	0,5	2,5	3,0	3,5	3,3	0,2	117%	
3.- Tasas y precios públicos.....	19,7	8,3	28,0	19,4	19,1	0,3	69%	
4.- Transf. y subv. corrientes.....	37,6	6,1	43,7	46,2	45,5	0,7	106%	
5.- Ingresos patrimoniales.....	0,5	-	0,5	0,7	0,7	-	140%	
6.- Enajenación de inversiones, .....	15,6	3,0	18,6	15,5	9,2	6,3	83%	
7.- Transf. y subv. de capital .....	3,0	15,9	18,9	7,7	6,6	1,1	41%	
8.- Variac. activos financieros.....	-	3,5	3,5	-	-	-	0%	
9.- Variac. pasivos financieros.....	-	-	-	-	-	-	-	
<b>TOTAL INGRESOS</b>	<b>89,4</b>	<b>39,8</b>	<b>129,2</b>	<b>107,1</b>	<b>98,5</b>	<b>8,6</b>	<b>83%</b>	
<b>GASTOS</b>								
1.- Gastos de personal.....	28,4	(1,1)	27,3	26,7	26,7	0,0	98%	
2.- Compra bienes y servicios.....	19,1	(1,6)	17,5	14,4	14,0	0,4	82%	
3.- Gastos financieros.....	4,6	(0,6)	4,0	3,8	3,8	0,0	95%	
4.- Transf. y subv. corrientes.....	10,2	0,4	10,6	9,8	9,7	0,1	92%	
6.- Inversiones .....	20,3	42,7	63,0	44,2	37,3	6,9	70%	
7.- Transf. y subv. de capital .....	-	-	-	-	-	-	-	
8.- Variac. activos financieros.....	-	-	-	-	-	-	-	
9.- Variac. pasivos financieros.....	6,8	-	6,8	6,8	6,8	0,0	100%	
<b>TOTAL GASTOS</b>	<b>89,4</b>	<b>39,8</b>	<b>129,2</b>	<b>105,7</b>	<b>98,3</b>	<b>7,4</b>	<b>82%</b>	
<b>INGRESOS – GASTOS</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>	<b>1,4</b>	<b>0,2</b>	<b>1,2</b>	<b>-</b>	

B. VARIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS CERRADOS					Millones-ptas.	
	Pdte. inicial	Anulac.	Cobros/ Pagos	Pdte. final		
Deudores.....	0,7	-	0,7	-		
Acreedores.....	6,4	-	6,4	-		
<b>PRESUPUESTOS CERRADOS</b>	<b>(5,7)</b>	<b>-</b>	<b>(5,7)</b>	<b>-</b>		



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. RESULTADO PRESUPUESTARIO	Millones-ptas.
Derechos liquidados .....	107,1
- Obligaciones reconocidas .....	(105,7)
Anulac. saldos a pagar en Cerrados .....	0,0
- Anulac. saldos a cobrar en Cerrados .....	(0,0)
<b>RESULTADO PRESUPUESTARIO</b>	<b>1,4</b>
Rtdo. por gtos. financ. con Rem. Tesorería .....	(3,5)
Rtdo. por desviaciones de financiación .....	0,0
Resultado poptario ajustado .....	4,9

D. REMANENTE DE TESORERÍA	Millones-ptas.
Remanente de tesorería a 1.1.97 .....	3,5
Resultado poptario 1997 .....	1,4
- Variación de la provisión insolvencias .....	0,0
<b>REMANENTE TESORERÍA A 31.12.97</b>	<b>4,9</b>
Tesorería .....	5,0
Deudores presupuestarios .....	8,6
Deudores extrapresupuestarios .....	1,7
Provisión para insolvencias .....	-
Acreedores presupuestarios .....	(7,4)
Acreedores extrapresupuestarios .....	(3,0)
<b>REMANENTE TESORERÍA A 31.12.97</b>	<b>4,9</b>
RT por desviac. de financiación .....	0,0
RT para gastos generales .....	4,9



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL / Cuentas patrimoniales

BALANCE DE SITUACIÓN A 31 DE DICIEMBRE DE 1997				Millones de ptas.	
ACTIVO	Año 97	Año 96	PASIVO	Año 97	Año 96
<b>INMOVILIZADO MATERIAL E INMAT.</b>	<b>227,8</b>	<b>42,0</b>	<b>FONDOS PROPIOS</b>	<b>152,8</b>	<b>(18,3)</b>
Destinado al uso general .....	21,5	14,9	Patrimonio .....	171,2	(32,1)
Inmovilizado inmaterial.....	8,4	-	Patrim. recibido en adscr. o cesión ...	-	-
-Amortización acumulada.....	(8,4)	-	Patrim. entregado en adscr. o cesión	-	-
Inmovilizado material .....	212,7	27,1	Patrim. entregado al uso general.....	(65,9)	(36,9)
-Amortización acumulada.....	(6,4)	-	Resultado ejerc. anteriores (*).....	50,7	27,6
			Resultado patrim. del ejercicio.....	19,9	23,1
<b>INMOVILIZADO FINANCIERO</b>	<b>0,3</b>	<b>-</b>	<b>SUBVENCIONES DE CAPITAL</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>GASTOS AMORTIZABLES</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>ACREEDORES A LARGO PLAZO</b>	<b>50,3</b>	<b>57,0</b>
			Deuda a l/p .....	50,3	57,0
			Extrapresupuestaria a l/p.....	-	-
<b>DEUDORES</b>	<b>10,3</b>	<b>1,6</b>	<b>ACREEDORES A CORTO PLAZO</b>	<b>17,2</b>	<b>15,4</b>
Presupuestarios .....	8,6	0,7	Deuda .....	6,8	6,9
Extrapresupuestarios .....	1,7	0,9	Presupuestarios .....	7,4	6,4
-Provisión insolvencias .....	0,0	-	Extrapresupuestarios a c/p .....	3,0	2,1
<b>CUENTAS FINANCIERAS</b>	<b>5,0</b>	<b>10,5</b>			
<b>TOTAL ACTIVO</b>	<b>243,4</b>	<b>54,1</b>	<b>TOTAL PASIVO</b>	<b>243,4</b>	<b>54,1</b>

(\*) El TVCP ha corregido el descuadre en esta partida que aparece en las cuentas aprobadas por el Ayuntamiento.

CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS DEL EJERCICIO 1997				Millones de ptas.	
GASTOS	Año 97	Año 96	INGRESOS	Año 97	Año 96
Gastos de personal.....	27,0	26,4	Impuestos directos.....	14,1	15,7
Servicios exteriores.....	16,6	16,0	Impuestos indirectos.....	3,5	0,5
			Tasas y precios públicos .....	19,3	21,2
Transf. y subvs. corrientes conc.....	9,4	9,5	Transf. y subv. corrientes rec.....	46,2	38,6
Transf. y subvs. capital conc.....	-	-	Trasp. subv. capital al rdo. año.....	7,7	4,3
Gastos financieros .....	3,8	6,1	Ingresos financieros .....	0,7	0,7
Dot. amortización de inmovilizado.....	14,8	-			
Dot. provisión para insolvencias .....	-	-			
Pérdidas de ejerc. anteriores .....	-	-	Beneficios de ejerc. anteriores.....	-	0,1
<b>TOTAL GASTOS</b>	<b>71,6</b>	<b>58,0</b>	<b>TOTAL INGRESOS</b>	<b>91,5</b>	<b>81,1</b>
			<b>RDO. PATRIMONIAL DEL EJERCICIO</b>	<b>19,9</b>	<b>23,1</b>



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **ARRAZOIBIDEAK**

JOSE FRANCISCO LARRARTE AGIRRE, Aizarnazabalgo Alkatea denez,

ZERA ADIERAZTEN DU

Euskal Herriko herri Kontuen Euskal Epaitegiak, 1997. Urteari dagokion Udal honen Txosten diagnostikoa idatzi duela, eta irakurri eta aztertu ondoren,

ALEGAZIO EDO IRADOKIZUN HAUEK egitea nahi lukela:

### **I. LEGEAREN BETEBEHARRAK**

**Sarrerak:** Ura, Zaborrak eta Estolderiako hiruhilabeteko erroldetan, kobratu aurretik, Alkatearen sinadura eta dataz inpreso bat betetzen da, domiziliatuta dauden erreziboak Kutxaren bitartez kobratuak izan daitezten.

**Funtzio publikoa:** Alkateak kobratzen duen soldata eta zinegotzien dietak, 1999. Urtetik aurrera regularitzatzeko bidea hasi da.

### **II. ALDERDI KONTABLEAK**

Begi onez ikusi dugu, egoera kontablean ez dela akatsik ikusi adierazi denean.

### **III. ANALISIS FINANTZIEROA ETA GESTIOAREN BESTE ALDERDI BATZUK**

#### **III.1 ANALISIS FINANTZIEROA**

Ondorengo aipamenak ere begi onez ikusi eta eskertu ditugu:

- Aurrezte haundia dugula antzeko herriekin konparatuz eta gorantz doanaren aipamena.
- Sarrera fiskalak altuak direla.
- Gastu arruntak jeitsi egin direla.
- Udalaren zorpetze maila jeitsiz joan dela.
- Gastu finantzieroak jeitsiz joan direla.

#### **III.2 GESTIOAREN BESTE ALDERDI BATZUK ETA GOMENDIOAK**

Gomendioak onartu eta betetzen ahaleginduko gara.